




:—: || VI Urtea || 1924'ko Ufila || 70 Zenbakia || :—:

Irudien agurketa

Statuas eis, et imagines quae videantur, erigamus
(S. Joan. Damascen. De fide orthodoxa. Liber IV-cap. 15.)
Anzkiak eta irudi ongi ematen dutenak jaso dezazkiegun.



ANTUEN agurketa bidezkoa dala erakutsi ondoren, ikusi bear degu beren irudiei ematen zaiotena ere bidezkoa ote dan. Baño aúfena gogora zagun B. K. Ikasbideak irudi oietaz diona.

G. Zer dira aldarean dauden irudiak?

E. Jesukristo gure Jaunaren, André Mariaren eta zeruetan dauden Doneen antz batzuek dira aldarean dauden irudiak.»

Auxe bear degu gogoan artu. Aldarean dauden santuen irudiak, itzak adirazten duan bezala, zeruko santuen itxura, antza ta eñañutxo batzuek besterik ez dirala. Oiei deitzen zaie itxura egiten duten santuen izenaz, baño edozeñek daki zerukoak guri gogorazteko besterik ez dirala aldareko irudiak. Ala dio B. K. Ikasbideak:

G. ¿Zertarako daude aldarean irudiak?

E. Aien bitartez Jesukristo gure Jauna, Andre Maria ta zeruetan dau-den Doneak gogora ditzagun eta aien antz-irudiak diran ezker, agur egin dizaiegun, daude aldarean irudiak.

Oneraño esana naikoa litzeke irudien agurketa au bidezkoa dala ezagu-tzeko. Irudiak gogorazten dizkiguten Done edo santuetara zuzentzen ditugu gure agurketak, gure otoitzak eta gure biotzeko esker onak eta maiteta-suna.

Irudiak dira, ba, santuaz ez aztutzeko, aien bizitza ta aiek egiña efaza-go bururatzeko, aien maitetasuna gure biotzetan sortu, befitu ta iraunazte-ko. Geroztik ona ba-da santuen agurketa len esanaz, aien irudiena ere bi-dezkoa dala agirian dago. Entzun X-gafen Pio'ri: Agurtu al dezazkegu Jesu-kristoren eta santuen irudiak ere?—Bai, Jauna; Jesukristo ta Santuen irudi-ei egiten zaien agurketa santu berai zuzendua bai-ta.

Santuen gorpuzkien agurketa

X-gafen Pio Aita Santuak galdetzen du:

G. *Eta Santuen gorpuzkiak ere agur egin al zaieke?*

E. Bai, baita Santuen gorpuzkiak ere bear diegu agur egin; beren gor-putzak Jesukristo'ren zati bizi ta Espiritu Santuaren jauretxe (Jaunaren etxe) izan ziralako ta zoriondurik betiko bizitzarako piztu bear dutelako.

Ona emen zergatik agur egin zaiekegun eta egin bear ere diegun:

1.^a Jesukristoren gorputz-zati biziak izan ziralako; au da, Jesukristo'ren santutasunean eta aren gorputza deitzen dan Elizaren seme-alaba on-onak

2.^a Espiritu Santuaren Jauretxe, bizi-toki ta etxe gozagafi izan ziralako

3.^a Azken egunean zoriontasunez jantzirik zerura bear dutelako oraingo auts puka oiek.

Krisostomo Santuaren esana

Krisostomo deunak gorpuzkien agurketaz onako itz gogoragafiok diz-kio:

«Jaungoikoak (santuen) animak artu ditu, guri beren gorputzak gure jai-era (debozioa) biztutzeko utzirik.»

Santuen gorpuzkiak ondasun iturriak?

«Santuen gorpuzkiak iturri osasungafi, ondasun asko guri ixurtzeko jafi dizkigu Kristo gure Jaunak.» Alaxe dio Juan Damaszeno santuak. Ori ala izateaz inor eztala afitu bear erakutsi ondoan dio: «auen bidez deabruak ate-ratzen dira, eritasunak garaitzen dira, gaxoak sendatzen dira, itxuak ikusbi-dea artzen dute, lepradunak garbitzen dira, zirikaldi ta ilunaldiak ayenatzen dira ta azkenean on guzia argiaren Aitagandik jeixten da oien bidez zalan-tzarik (dudarik) gabeko siñismenaz eskatzen dutenetara.»

Oraindik Bernardo Santuarekin esan giñezake agurketa on zaigula ga-ñera gure baitan (bafuan) gogo biziak sortzen dituztelako. ¿Zeren gogoak? Aien antzekoak izateko, lufean zerpait eramatez zerua irabazteko ta gorpu-tzaren naikeriak beti zapaltzeko.

Auek guziengatik dio ba B. K. Ikasbideak:

G. *Agur egin bear al diegu Santuen gorpuzkiñai ere?*

E. Bai jauna, Santuen gorpuzkiñai ere agur egin bear diegu.

G. *Baña egin al dezaiekegu agur gorpuzkin eta irudi utsai?*

E. Bai jauna, gorpuzkin eta irudi utsai ere agur egin dizaiekegu ta egin bear diegu: gorpuzkin eta irudiai egindako agurá, Jesukristori berari, Andre Mariari ta Doneai egiten zaie.

Itz batean Jaungoiko berak eragiten du agurketa au ainbat bidez. Gerroztik zilegi, on eta beaíezkoa da agurketa au.

Intza'r Damaso An.



Eñosario'ko Andre Maria, Alegria'n (Araba'n)



EROSARIOA



U otoitz (orazio) edefa Erosarioa!

Bere bidez goaz Jaungoikoanaño efaz; eta bere bidez datorkigu Jaungoikoaren nai aña laguntza guganaño.

«Aita gure» az asten degu Erosarioaren amafeko bakoitza, Zeruko gure Aitaren laguntza bear degulako. Baño laguntza ori gerez ezin iritxi degula ezagutzen degulako, laguntza ori iritxi dezakigunagana jotzen degu be-reala.

Pekatarari batzuek gera otoitz (orazio) ori egiten degunak; baño pekatu gabekoagana jotzen degu, diosalarik gozoenaz eta eskaririk sut-suenaz gure alde eskatu dezan berak.

Pekatariak ezagutzen degu gaiztoak izan afen Ama-Birjiñagandik atxoin (itxoin) deza-kegula zerbait. Ama-Birjiña Jaungoiko berak guri bere ondasunak emateko bidetzat artu zualako. Jaungoiko Semeak bere Amatzat arturik, nolapait Andre onen zordun bere burua egin zualako. Ta azkenean gu erostekoan edo gure onez neke, min, naigaberik gofienak era-

matekoan bere Ama au bere lagun egitean eta azken orduan gure Amatako uztean, nora jo ta noren bidez berari eskatu erakutsi zigulako.

Auk guziengatik kristau efiak «Aita gurea»ren ondoren amar Agur Maria esaten ditu. Onenbeste aldiz Amari deituaz, Ama beartzeko otoitz egin dezan, beragana begiak jasotzea merezi ez degunaz.

Otoitz au egin bidenabar kristau efiak siñiskai atsegin, mintsu eta aintzagafi batzuek gogoratzen ditu. Lenengo bost siñiskai atsegintsuaz Jaungoikoaren Semeak lufeko bere lenengo urtetan gure onez egiña gogorazten digu.

Jesus Aurtxoak Amaren eskaera ez digula ukatuko guri siñistu erazteko.

Siñiskai mintsu edo nekezkoak gogoraztean siñistu erazi nai digu, gure onez alako nekeak eraman eta alako eriotza gure onez artu zuanak ez gaituala eskatzen dioguna gabe utziko.

Siñisgai aintzagafi edo gloriatzkoaz gogoratzen degu zeruan zein laguntzale azkar, eskudun eta biotz beratzak dauzkagun.

Gure onez ainbat lufean egiñak, zeruan zer tokitan dauden gogorazten digu, gure otoitza izan dedin etsiagoa ta siñiste (fede) bizigoaz egiña.

Eliz Ama Santak eragiten digu Ama Birjiña'ren jaiera (debozio) ortara, Aita Santuak egiñaz eta esanaz.

XIII-gaŕen Gregorio Aita Santuak Eŕosarioaren Jaia egiteko eskubidea eman zuan Ama-Birjiña Eŕosariokoaren aldarea edo irudia zuten eliza guzietarako.

XI-gaŕen Klemente Aita Santuak Eliza guzirako Jai egin zuan Eŕosario'ko Ama-Birjiñaren eguna ta beste Aita Santu askok ontasunez, induljentziz ta irabazpidez aberastu dute egun ori.

Amairugaŕen Leon Aita Santuak kristau efi guziari eragin zion bere Agiri edefez Eŕosario Santua egunero esatera, eta batez ere Uŕilean (Lasteilean). Jai ori lenengo malekoa egin zuan eta Ama-Birjiñaren eskarietan (letanietan) Eŕosarioko Ama-Birjiña aipatzeko agindu zuan.

Onengatik Eŕosario santua otoitz edefenetakotzat iduki. Ondasun guzien itufitizat begiratu. Eta kristau etxe guzietako eguneroko otoitz beafezkotzat artu.

Zeruko Amak bere aurtzat artzea nai degunak, bildu gaitezen bere oñetara eŕosarioa eskuan degula.

Ar'tar A.

Prantzisko Deuna ta bere Andrea



Z al dakizute, Asis'tar Prantzisko Deunak ere ba-zuala bere andrea? Bai, ba.

Iñork maite nai etzuan andre bat, Prantzisko Deunak maite izan zuan.

Alderdi guzietan ateak itxi egiten zizkioten andre bati zabaldu zizkion Prantzisko Deunak bere biotzeko ateak.

Denai oso itxusia ta goŕotografia iruditzen zitzayen andre bat, guziz edefa ta maitagafia iruditzen zitzayon Prantzisko Deunari.

Ludi guzian, denak igesi zebiltzan andre batengandik, eta Prantzisko Deunak andre ori beretzat artu zuan, eta berarekin bizi nai izan zuan beti-beti, iñ arte.

Ez al dezute oraindikan asmatu, zein ote zan andre ori?

Txirotasuna, ufitasuna edo pobreza izan zan. Ezeren jabe ez izatea; Jaungoikoaren maitasunagatik, gure ogasun guziak utzita, beartsu bizi nai izatea. Auxe zan, Prantzisko Deunak geyen-geyena maite izan zuan onbi-de edo birtutea.

Bere maitasuna nolabait ere erakutsi nayan, pobrezari edo txirotasuna-



Prantzisko Deuna ta txirotasuna (pobreza)

ri, batzutan bere andrea deitzen zion; beste batzutan, bere ama, bere afeba, eta beste izen alik maitatienak.

Bein bidean zijoala, iru andre pobre edo txiro agertu zitzaizkion, aundian, arpegian eta jazkeran alkafen antzekoak.

Iruak, Prantziskoren ondora joan, eta agur-egin zioten esanaz:

Ondo etofia dezazula txirotasun andrea.

Emakume ayen itzak adituta, Prantzisko Deunari bere bafua maitasunez urtu zitzaion; itz auek, eztiñ baño gozoagoak zitzaizkion, txirotasuna baño gauza maitagafiagorik beretzako etzegon-eta.

Prantzisko Deunak txirotasuna baño geyago, bere ondasunak maite dituanik, ezta efex egongo iñor.

Gu ere, guregan Jaungoikoa euki ezkeron naiko aberats gera. Munduko ondasun guziak baño geyago aberastuko gaitu gure Jainko maiteak, Beraxek bakafik.

IZASKUN'ek

SENDI AGURGAÑA

(Verdaguer)

Maria ari da josten;
Jose Jexuxentzat
Egiten asia da
Seaska polit bat.

*Jauna, Gurutzea,
Zaitzu txit maitea.*

Jexuxi etzaio atsegin;
Zefea artzen du
Eta seaska olak
Gurutzatzen ditu.

*Jauna, Gurutzea
Zaitzu txit maitea*

Mariak ikusten du
T'ofatza utzirik,
Damaio (1) negafari
Jexuxi diolarik:

*Jauna, Gurutzea
Zaitzu txit maitea.*

—Biotzean aldatu,
Gurutzea neri,
Eta nere begiak
Ez bezate ikusi.

*Jauna, Gurutzea
Zaitzu txit maitea.*

—Nai det, dio Jexuxek,
Bertatik igaro
Zerurako zubia
Berauxe dalako.

*Jauna, Gurutzea
Zaitzu txit maitea.*

SABIAGA

(1) ematen zaio





Memento rerum Conditor.

(Wenn wir in höchsten Nöten sind)



Andante

J. S. Bach.

O - roi - zai - te - - - - Jain-
Me - men - to - re - - - - rum



ko - Jau - na, Gi - zon - a - ra - giz
con - di - tor No - stri - quod - o - lim



jan - tzi - rik Bir - ji - ña - ren sa - be - le -
cor - po - ris Sa - cra - ta ab al vo Vir - gi -



tik Gu - ga - tik ja - yo zi - ña - la.
nis Na - scen - do for - mam sum - pse - ris.




Memento, rerum Conditor

Memento rerum Conditor
Nostri quod olim corporis
Sacrata ab alvo Virginis
Nascendo formam sumpseris.

Maria, Mater gratiae,
Dulcis Pater clementiae
Tu nos ab hoste protege
Et mortis hora suscipe.

Jesu tibi sit gloria
Qui natus es de Virgine
Cum Patre et almo Spiritu
In sempiterna saecula.



Oroi zaite, Jainko Jauna,
Gizon-aragiz jantzirik
Birjiñaren sabeletik
Gugatik jayo ziñala.

Maria, Ama eskertsu,
Erukizko Ama ona;
Etsayagandik gu zaindu
Ta il-orduan zukanatu.

Biz ospea, Jesus, zuri
Birjiñaren Seme ofi,
Ospe bera Aitari ta
Espiritu Santuari.

ANTONIO DEUNAREN BASERI-ETXEAN



ARI Antonio Aita, Prantzi aldeko kaputxino ospetsua, Antonio Deunarekiko oneraspen-zabaltzale aundia izan zan Bere Zaindari Deunaren mesedeak gogoratzek etzan beñere aspertzen. Geiena esan oi zituan gertaeraetako bat onako au da:

«Misio batzuetatik itzultzean, erdian etxealde aundi bat zegoan zelaieta eder batetik netofen. Gariak oso onak zeuden eta etxe artako guztiak *umore* ona zeukaten. Gerturatu nintzanean etxeakoak lastanki eta kristau-legez agur egiñaz bidera irten zitzaizkidan.

—«Sartu zaitez, sartu zaitez, emen zure etxean zaude-ta» esan zidaten. Eta zerbait ari-

turik gelditu nintzala ikustean zioten: «Antonio Deunaren anaia ez al zera bada? Emengo gauza guztiak bereak dira, guztiak bere izena dute. Gure gariari, Antonio Deunaren garia deitzen diogu; gure mastiai, Antonio Deunaren mastiak; gure idiai, Antonio Deunaren idiak; eta gure oloai, Antonio

Deunaren oloak; guzti-guztia berari eman diogu eta egiz ofekin ez degu ezertxo ere galtzen».

Emate ain oso au nere ařitasuna kentzeko etzan aski; eta kristau on aiek asmakari aren azalpena berealaxe egin zidaten: «Aita ori, urte batzuek dirala naigabe aundiz gure etxeko guztia iltzen ikusten genduan; gure soroetan garirik ez genduan biltzen eta gure mastiak matsik etzigituen ematen; gure idiak ukuluan iltzen ziran eta gure txita guztiak sapelatzak jaten zituzten. Ofela nekez inguraturik bizi giřala—«Antonio Deuna gure etxeko zaindarizat artu dezagun; bere beartsuengan ordainduko diogu; urteoro biltzen degunaren bostena emango diogu»—esan genduan. Ofela egin degu eta beartsuak egiztu dezaketenez gure itza zintzo gorde degu.

«Antonio Deunari eman eta eskaři giřion egunetik etxe onetan guztia obetu da. Gure soroetako garia alderdi ontako onena da eta saloskundean (*perian*) oso jaso aundia izaten du. Gure mastiak bikaři-bikařiak dira eta gure ardoa txit edangarřa da; gure idiak indartsuak eta nekaitzak dira. Gure oloak eziři zenbatu ařa dira: Antonio Deunak gure gauza guztiak bere ardurapean artu dituan ezkerro, zapelatzak ez digu txitorik eraman.

«Egiz, gure etxea, Antonio Deuna bere jabe ta zaitzale dan ezkeroztik atsegintoki biurtu da eta zorionak eta lasaitasunak ez digute beřere aldegin».

Eta baseřitaf zintzo aiek «Gora Antonio Deuna!» oju egiten zuten. Eta nik garai berean Jaungoikoa goratu eta Deun Alatz-gilea (mirarigilea) an-dietsi bařo ez nezakean».

Baseřitaf zintzo oien elizkoitasun eta oneraspenari jafaituaz gure buru eta gauza guztiak Paduako Antonio Deunaren ardurapean jafi ditzagun; eta batez ere zuek, baseřitafak, zuen buru, etxe, abere, soro eta beste zuen gauza guztiak Deun ofen ardurapean ipiři itzatzute eta Deun ofek ondamen guztietatik gordeko zaitue.

Otař Ak O. M. Cap.



Afrika'ko Misioetan

Ikasi, aurrak!



isiolaria joan zan bein etxe batera kristau famili bati ikustaldia egitera. Etxe artan bazuten bost urteko mutiko bat eta oni galdetu zion misiolariak ea bere amak otoitz-egiten irakatsi zion. Aurrak erantzun zion bayetz, egin zuen *Aitare*n ta garbi-garbi, bat ere motel-du gabe esan zuen *Kredoa*. Gero eske au egin zion misiolariari: «Aita, nik ere Jauna-artu nai det, amaxok bezala.» Aritu zan misiolaria au entzunez, ta orduan amak, poza zeriola, esan zion: «Begira zer gertatu zitzaidan lengo egun batean. Meza entzuten izan nintzan ta artan Jaunartu ondoan etxeratu nintzalarik besarkatu ninduen aurrak onek, bere burutxo nere biotz gañean jafi zuen ta etzuen inñolaz ere aldendunai, bein ta befiz esaten zidala: Amaxo, eskefik asko gure Jesus maitea etxera ekafi diguzulako.»

Bost urteko umetxo aurrak fede bizia! Arkitzen alda gutartean olakorik asko?

Jesus'enganako miña.

Bein batean (aspaldi eztala) Misiolari batek topatu zuen lau urte ta erdiko nextato bat.

—«Egun on, nextatoa», esan zion.

—«Bai zera *egun on*» erantzun zion aurrak, «zergatik esaten didazu *egun on*, bat ere maite ez nauzu ta».

—«Zer diozu? Nik maite etzaitudala?»

—«Ez, ez nauzu bat ere maite; elizan bein ere ez didazu Ostia Santua ematen, ta besteai bai ematen diezu.»

«—Bañan, aurrak, Ostia Santu ori zer dan ere ez dakizu ta ezin dizazuket nik ori eman.»

Orduan nextatoak zartadan erantzun zion:

—«Bai orixe, badakit nik zer dan ori. Ostia Santua ez al da Jesus, Jainkoaren Seme gugatik gizon egin zana?»



Ustegabeko erantzupen ontaz afiturik esan zion Misiolariak:

—«Aufa, gure Jauna artzeko, arima garbi-garbi iduki bea da edo bestela konfesatu bea da.»

—«Badakit zer dan konfesatzea ere, nere amak erakutsi dit, eta gaixtoa izaten naizenean mokoka egiten dit »

—«Baña ziñez gure Jauna artu nai al dezu?»

—«Bai orixe, bai» oyu egin zuen aurfak, «biotz-biotzez nai det».

Orduan Misiolariak biotza samurturik esan zion:

«Ederki, atoz bía konfesatzera ta gero gure Jauna artuko dezu.»

Aurfak ta aurf eztiranak ere bai, ikasi Afrika'ko aurtxo ofengandik, nola-ko gogo bizia izan bea dan Jesus artzeko ta nolako prestaera eraman bea degun aldare santura urbiltzen geranean.

Biotz oneko kristaua.

Katekista batek arkitu zuen mutiko bat erortzeko-miñak arturik lufean etzana, gorputz guzia dardar ikaretan zuela. Itz egin zion, zutitzen lagundu zuen ta ea ibili ote zitekean probatu zuen. Bañan alpefik, mutiko gaxoa erori zan befiz ere bidean korderik gabe. Orduan biotz oneko katekista arek artu zuen soñean ta Misiotegira eraman zuen. An il zan mutikoa biaramonean, baña il orduko emana zioten zerurako sarbidea batayo santuaren bidez.

Misiolariak atsegiña erakutsi zion katekistari, aurf gaxo aren aldera izan zuen maitasunagatik. Katekistak ordea erantzun zion: «Aita, nik oraño jentil nintzalarik ainbeste gaiztakeri ta ain on gutxi egin nuen, ta orain befiz afa-patu nai det orduan galdu nuen astia. Begira, bein iltzen naizenean, galdegingo dit Jainkoak: Fabiano, zer egin dek ire bizialdian? Ta nik erantzungo diot orduan: Jauna, eztet on aundirik egin, egia; baña arima bat zeruratú det».

Auek itz edefak! Eztaude beraz jende on guziak Europan, badira an ufutiko bazter ayetan ere Jainkoa biotzez maite duten kristau onak. Guk Europa'ko kristau zafo badegu zer ikasi Afrika'ko kristau befi lafu-beltz ayengandik.

(Suiza'ko Kaput'xinoak argitaratzen duten Missionsbote'tik artua.)



Emakumea ta Irakurgaia

22. Lanik sarigariena (meritudunena).



RAKURGAI onen lana bere gafantzi edo inportantziagatik beaſa ez ezik sarigariena, sari aundiena merezi duana da.

Beaſezkoa da au benaz, ziñez ſiñisteſta. Egi argi-argia da. «Irakurgai onak geitu ta gaiztoak ondatzeko lan egitea, zion Genari kardenal jaunak, lanik gafantzi edo inportantzi aundikoena eta sarigariena dala eſan bear da.»

Ta, ala ere, badira irakurgai onetaz ardura (kontu) izan ta al degun biñe guzietaz oiei lagundu beaſa ezagutzen ez duten katolikoak, bai andreen artean ere. Batzutan arinkerietan dirua ondatzen da: gaixo-etxe ta gorputzeko beaſai laguntzeko diru-piño aundiak uzten dira azkenai edo testamentuetan; ta batez ere animarentzat ta gauza onentzat pizkorgafiak diran irakuſgai onentzat, ezer ez. Auxe bai oker aundia! ¡A zer jakiñeſta!

Andre preſtu ta elizkoi ta aberats batek beartsuentzat, baita misioentzat ere, diru asko utzi zuan.

—Eta irakuſgai onentzat? galdetu nion.

—Oien alde zerbait egitea on dala uſte al du beofek?

—Zerbait? Askok, andrea, asko. Zer, gure etxean bertan ſiñismena galdu dutenak ontzea, Asia ta Aprika'ko ſiñismengabeak ontzea bezin garantzi-duna (importantea) ez dala uſte al dezu? Ta zaila da irakurgaia gabe au irixtea.

—Etzidan iñortxok gauza ontaz itz egin.

Andre argia zan ta ez nuen neke aundirik artu bear izan, bera irakuſgai onai laguntzera mugitzeko; eſan ta egin, oientzat diru asko uztea erabaki zuan. Baño itz auek «etzidan iñortxok gauza ontaz itz egin» atsekabe izugafia eman zidaten. Zer da au? Ain gutxi al dira irakuſgai katolikoek beaſ ta gain-gañeko gafantzi edo inportantzia ezagutzen dutenak?

Ta ala Aita Santuak, Kardenalak, Gotzai edo Obispuak ta erlijioaz, animetaz eta gizarteaz ajola aundia izan duten gizon bikañenak askotan aitortu dute.

1861'gn. urtean IX Pio Aita Santuak Friburgo'ko *Liberté*'ri zion: «Irakuſgai onak gain-gañeko ona dakaſten erlijioaren aldeko lana dira.»

Parocchi kardenal jaunak idatzi (eskribitu) zuan: «Irakuſgai katolikoek lan au mundu guzian bafeaturik ikusi nai nuke alkaſtasunik goren eta bikañenak izan dituzten laguntzakin, Eliza ainbeste poztu duten laguntzakin. Ofek, ſiñismena zabaltzeak ekaſten dituan on berak ekaſiko ditu.»

Ta oraingo Biella'ko Gotzai edo Obispo Garigliano jaunak eſan du: «Irakurgai onen gafantzia, premia ta, nai ta ez, daukagun beaſa ezagutu nai

ez dutenen kopetan jakiñezeko marka ipintzeko suzko itzak euki nai nituke.»

Oraingo Aita Santuak, Milan'go Goi-gotzai edo Artzobispo zanean, zion: «Irakufgai onen alde egiten dan edozein gauza ongi-egite aundia da. ¡Ainbestekoa da irakufgaien gafantzia edo inportantzia! Irakufgai onen alde egingo dana neretzat egindakotzat artuko det, ain biotzez maite bai-det lan au.»

23. Gogoan iduli

Prantzian bizi ziran ondorengo gabeko bi aizpa; bere ondasunen mozkin edo interesa urteko pezeta-mila asko ziran; merke bizi izanaz mota guztiko lan onentzat diruketa ikusgafiak ematen zituzten. Efiko beartsuen ornitzaleak ziran; gaixo-etxeai laguntzen zien, urtero kristau-eskolentzat poliki ematen zuten, elizentzat ere diru poliki luzatzen zuten. Baño irakufgaietaz etzuten itzik ere entzun nai, berak ziotenez, beartsuak ezpaitute irakufgai beafik. Baño ain zuzen gaixo-etxe ta beste oien antzeko etxeetako beartsuak albistari edo periodiko gaiztoak irakufitzen zituzten ta alako egun batean, sozialistai iritzi edo botoak eman zizkien; auek efiko-etxean nausiturik gaixo-etxetatik Gurutzea ta monjak kendu zituzten.

Gero araudun edo erlijioso ta beren eskolen kalteko legea etofi zan, eliza asko itxi ziran ta gizaldi askoko lanak matxinadazko aize zakafak batean ondatu zituan.

Alpefkerian bizitzeko berak lagundu zien aiek berak ondasunak kenduta, bi aizpa gaixoak, premia gorian gelditurik, bere zartzaro ilunean bein ta befiz esaten zuten: «irakufgaien lana aztu zutelako, berak laguntzen zien guztiak ondatu zirala.»

Gogoan artu! Jakinduri gabeko Jaun-maitetasuna zan.

Beafezkoa da gaurko egunean bestera gauzak ežitea.

«Antziña, idatzi edo eskribitu zuan Prisco kardenal jaunak, kristau-maitetasun esku-zabalak lenago ta gaur guzien afigaři diran lanak jaso zituan; orain beafezkoa da ofen zati bat bakoitzari, sendi edo pamiliari ta erlijio ta gizarteari on aundiak ekartzen dizkien apostolautzaren era befia diran irakufgaiak lagundu, jaten eman ta oiek bafeatzeko izatea.»

Cultrera-Arbelaitz O. M. Cap.





JAKINTSU TA KATOLIKO BIKAÑA

Westfalia'ko Münster izena dun urian il da ango lkastetxe Nagusiko (universidad) irakasle 30 urtetan izan dan Gillermo Killing. Argi erakutsi du bere bizi-tza guztian ez dala egia askok uste eta esaten dutena, siñismena ta jakinduriak ez dutela elkar ondo artzen. Nai'z jakintsua izan, etzuen a'okeririk ezagutzen. Urtero ikusi oi zuten atez ate beartsuentzat dirua ta beste gauzak biltzen. Egunero joaten zan mezara ta Jauna artzen zuen; Prantzisko deunaren irugafendafa zan ta berak biltzen zituen elizan beste irugafendafak, guziak batean beren otoitzak egiteko. Elizako organuari aizea emateko muti'lik ezpazan, bera joango zan lotsarik gabe, elizkizunak edertasunaz ezertxo galdu etzezatzen. Gurutzea ere eramanean bear izan zuen: lau seme ikusi zituen bata bestearen atzetik iltzen, azkenengoa g'efatean; iltzeko zorian zegoela jakin orduko, ikusi nai izan zuen, baña berandutxo eldu zan: kristau onen antzera il zala esan ziotenean: «Jaungoikoa bedein-katua izan bedi, esan zuan, orain lasai nago». Eriotza bazetorkiola ezaguturik, etzuen gogo bat besterik izan, irugafen ordenako jantziakin lurperatua izatea.

E'ROSARIOAK ASKO DEZAKE

O'Connell, Irlandaren azkatzaleak afituta eukitzen zituen bere etsaiak bere itzefo'iaz. Gertaera onek erakutsiko digu zenbat maite zuen gizon aundi onek otoitza. Egun batean Irlanda'ren kaltean eman nai zan lege batek eztabaida aundia sortu zuen lege-etxean edo kongresoan. Irlandafak, galtzeko zorian zeudela ikusirik, O'Connell Daniel'engana itzuli zituzten begiak laguntza eske, baña gizon bikaiñ ura etzegoen bere lekuan. Joan ziran bere bila ta gela batean arkitu zuten e'rosarioa eskuan zuela. «Atoz, esan zioten, bestela galduak gera». O'Connell'ek lasai ta bildurik gabe esan zien: «Utzi nazazute e'rosario au bukatzen; itzaldi edere'nak baña geyago egingo du erosario onek Irlanda'ren alde'z».

ARTZAI PROTESTANTE GUTXI

Protestanteak lafi dabilta beren elizetarako bear dituzten apaiz edo artzai guziak ateratzen etzaizkielako. Oraindik urte gutxi dirala, Dublin'go lkastetxean 150 apaizgai zituzten, orain befiz 20 bakafik. Ingletefa'n ori bera gertatzen zaie: edo eriotza edo urteak dirala, 700 edo 800 artzai protestanteak uzten dituzte beren elizak ta toki oye'k betetzeko ez dira 200 edo besterik izaten. Katolikoak ongi daude ontan, Irlanda'n beñe'pein; oraindaño apaiz naiko atera zaizkie ez bakafik Irlanda'rako, baita misiotarako ere.

ORAIN ZAZPIREUN URTE

Prantzisko deunaren semeak Ingletefa'n sartu zirala zazpireun urte dirala ta

Aita Santuak idatzi dio Westminster'ko arzobisko Bourne Kardenalari. Bere eskutitz ortan Aita Santuak gogoratzen ditu Prantziskotarak an egin duten lana ta Ingletera'n dauden Prantzisko deunaren seme guztiai bere bedeinkazioa bialtzen die.

USTE GABE ZERURA

Aljeria'n jayotako Khemili Mohamed baten eriotzaz itzegiten dute Paris'ko izpafingiak. Gizon bat il zuela ta berari ere bizitza kendu diote. Baña edereña ixildu dute. Mohamed ofek etzekin ez idatzi ta ez irakurtzen; prantzesez itz batzuek egiten zituen: Jaungoikoa zanik ere etzekien. Bere bizitza guztian mahomafa izan afen, espetxe edo kartzelan gure erlijioa ezagutu bezin lastef, ikasi zuen beaf zan guztia espetxeko apaizarengandik ta eriotzarako atera baño lenago, bere gelan artu zuen batayoa. Azkenean apaiza besarkatu, gurutzeari mun-egin ta jendeari aguf egin da gero il zan.

MEZA EZTA BEÑERE UTZI BEAR

Orain dala gutxi, Prantzia'k Mañuekos'en daukan gobernadorea, Lyautey Burdeos'en lufera zan, andik zetofela. Igandea zan ta goizeko amafetan, beti gertatzen dan bezela, uriko agintari guztiak etofi zitzaizkion aguf-egitera. Guztiai bere poza agertu ta eskefak eman zizkien alako aferagatik ta mezarako garaya zala gogoraturik, onela esan zien: «Barkatu, Jaunak, enaiteke zuekin geyago egon; Mañuekos'en eztegu oraindik Jaungoikoa alde batera utzi, onegatik eztezaket meza utzi, ordua da ta». Ta guztiak utzi ta an bertako eliza batera joan zan. Ori da egiazko kristaua izatea.

RAS TAFARI TA KAPUTXINOAK.

Ras Tafari, Etiopia'ko efege-ordekoak ikustaldia egin dio Aita Santuari. Ikustaldi ontarako bitarteko izan ditu Paris'ko Nunzioa ta Gonzalo Aita Kaputxinoa, lendik aren adiskide aundia. Ras Tafari egon da Kaputxinoak Etiopia'ko gazteentzat daukaten ikastetxean. Ufengo egunean Frascati'ra joan da, Etiopia'k izan dun mixiolaririk aundiena, Massai Kardenalaren ilobia ikustera. Konbentuko atetara kaputxinoak atera zitzaizkion ta gure misiotako idazlari edo sekretarioak eskefak eman zizkion Etiopia'n mixiolarik kaputxinoai ematen zayen laguntzagatik. Azkenean Ras Tafari ta bere lagunak konbentuko jan-tokian zerbait artu zuten, Frascati'ko agintariak emanda.

